

June Hernandez, futbol atezaina:

“Futboleant lagun berri ugari ezagutu ditut”

Familiatik datorkio kirolari sena June Hernandezi. Eskolako taldean ibili ostean, futboleant jarraitzeko Eibarko taldera joan behar izan zen. Hiru urte daramatza Eibarren hamalau urteko gazte ermuarrak eta Realarekin jokatu izan ditu txapelketak.



-Kirolarekin duzun erlazioa estua familiatik datorkizu.

Bai, guztioi gustatzen zaigu kirola egitea etxean. Nire nebak triatloia egiten du eta 13 urte dituzten umeak futboleant entrenatzen ditu, gurasoek ibiltzea atsegin dute eta nik futboleant jokatzen dut.

-Eta futbolarekiko pasioa ere, txikitatik?

Askotan Eibarrera joaten naiz partidak ikustera ekipokoekin, koadrilakoek eskubaloian egiten dute eta futbola gustuko duen bakarra naiz.

-Noiz hasi zinen futboleant jokatzen?

7 urterekin eskubaloian hasi nintzen. Futbola gehiago gustatzen zitzaidala ikusita, mutilekin ikastolako ekipoa sartzea erabaki nuen. 3 urte pasatuta Erman nesken talderik ez zegoenez, eta ezin nuen mutilekin jokatu, Eibarrera joan nintzen, bertan nesken taldea zegoelako. Atezainik ez geneukan partidu batean, entrenatzaileak ni ipini ninduen. Niri ez zitzaidanez axola, atezain modura jokatu nuen eta orain postu horretan jarraitzen dut.

-Entrenatzaile eta taldekide berriak ezagutuko zenituen urte hauetan?

Beti izan ditut entrena-

tzaile onak eta beti izan dut harreman ona beraiekin. Taldekideei dagokienez, hiru urte daramatzagu elkarrekin futboleant jokatzen eta oso erlazio ona daukagu. Oso gustura nago egia esan.

-Eibarretik, Realerako jauzia. Nola iritsi zen une hori?

Iaz torneo baterako taldeko biri deitu ziguten eta hiru entrenamendu egin genituen. Gero, txapelketa batean aritu ginen Tolosan. Realak ez du oraindik talde finkorik eta txapelketetan parte hartzeko deialdiak egiten ditu Gipuzkoako tal-

deetako jokalariekin. Bertan exijentzia maila altua da, baina zonaldeko neska onenekin aritzea positiboa da.

-Euskal Selektzioan ere ibili zara. Nolako izan da esperientzia?

Esperientzia ikaragarria izan zen hura. 4 entrenamendu egin ostean Espainiako txapelketara joan ginen, Tarragonara. Bertan, bost partidu jokatu genituen, hiru irabaziz eta bi galduz. Ez nituen bertako neskak ezagutzen eta momentu hartatik aurrera oso erlazio ona daukagu.

Amaia Arginzoniz

LEIRE MAYORA
PODOLOGOA

Erdikokale 1, 1. A
48260 Ermua
☎ 943 17 47 44

san pelayo
clínica dental hartz klinika

San Pelayo 5, 1º
Ermua (Bizkaia)

Olatz García Arregui

943 17 04 04

OSASUNA • ESTETIKA EDERTASUNA

Marfil

Ile-apaindegi bat baino gehiago!!

Egokitutako burua garbitzeko konketa

943 17 28 09 • Goienkale 12

SAGARDUI
poltsak

Zubiaurre, 29 - Ermua • 943 170305



KRABI

Ileapaindegia
Estetika

Tel: 943 03 17 56

Diputazio, 5

ERMUA